

Konbinatoria (Gelan egiteko adibideak)

1. Zenbat modu desberdinetara margo daitezke 12 gela, horietako 3 berdez margotu behar badira, beste 2 urdinez, beste 2 gorritz eta gainerakoak txuriz? (erantzuna: 166.320)
2. 10 lagun aulki batean elkarren ondoan eseri eta argazki bat egiteko zenbat aukera desberdin daude? (erantzuna: 3.628.800)
3. "ELAIALAI" hitzaren hizkiak zenbat modutara ordena daitezke? (emaitza: 1680)
4. 7 txanpon ditugu, denak desberdinak. 3 lagunen artean banatu nahi ditugu. Denak banatu behar dira. Zenbat modutara egin dezakegu banaketa? (emaitza: 2.187)
5. 10 lagunez osatutako elkarte batean lehendakaria, idazkaria eta diruzaina aukeratu behar dituzte. Lagun berak ezin ditu bi kargu hartu. Zenbat aukera desberdin daude? (emaitza: 720)
6. Azterketa bateko 12 galderen artetik 8 erantzun behar dira. Zenbat aukera desberdin daude 8 galdera hautatzeko? (a) Murrizketarik ezarri gabe (b) Demagun lehenengo 5 galderen artetik 2 aukeratu behar direla eta azkenengo 7 galderen artetik 6. (c) Demagun lehenengo 5 galderen artetik gutxienez 2 aukeratu behar direla eta guztira 8. (emaitzak: 495, 70, 490)
7. 21 laguneko talde batean 7 kidez osatutako 3 azpitalde osatu nahi dira. Zenbat aukera daude azpitaldeak osatzeko, lagun bat ezin bada bi azpitaldetan egon? (emaitzak: 399.072.960)
8. "ABRAZARAMOS" hitzaren hizkiak zenbat modutara ordena daitezke? (a) Murrizketarik ezarri gabe (b) Demagun "A" hizkiek ezin dutela elkarren ondoan egon (emaitzak: 831.600, 176.400)
9. Ardotegei batean 20 marka desberdinetako ardo botilak daude. 12 botila erosi nahi ditugu. Zenbat aukera desberdin ditugu? (emaitza: 141.120.525)
10. Marrubizko 8 goxoki eta limoizko 6 goxoki 4 haurren artean banatu nahi ditugu. Haur guztiek jaso behar dute gutxienez marrubizko goxoki bat. Zenbat modutara egin dezakegu banaketa? (emaitza: 2.940)